

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 18 gaztek parte hartzen dute Foru Gobernuak eta Nafarroako Volkswagen-ek sustatutako lanbide-espezializazioko ikastaroetan

*Ikasketa teoriko-praktikoak Landabengo fabrian egiten dira, eta Alemanian homologatu ahal izango den titulazio ofizial bat lortzeko balioko dute*

Jueves, 06 de septiembre de 2012

18 ikaslek parte hartzen dute Foru Gobernuak eta Nafarroako Volkswagen-ek elkarrekin sustatutako lanbide-espezializazioko lehen programan. Espainian aitzindaria den ekimena Landabengo fabrian egiten da; hala, ikasleek beraien ezagutzak zabal ditzakete ekoizpeneko eta mantentze-laneko munduari aplikatutako azken belaunaldiko teknologiak erabiliz.



Iribas kontseilaria Nafarroako Volkswagen-eko zuzendaritzako kideekin eta programako parte-hartzaileekin.

1.000 orduak gainditzen dituen prestakuntza teoriko-praktikoa da, alemán estilora, eta Lanbide Heziketako (LH) gradu ondoko titulu ofizial bat lortzeko balioko du, Foru Gobernuak eta Nafarroako Volkswagen-ek emandakoa eta Espainian homologatuta dagoena. Gainera, titulua Alemaniako ziurtagiri-sistemarekin baliozkotzeko aukera eskainiko du, Alemaniako Merkataritza Ganberak deitutako azterketa baten bidez.

Ematen diren espezialitateak honako hauek dira: mekatronika industrialean aditua, automatizazio industrialean aditua eta moldeak mantentzeko eta birdiseinatze aditua.

[Iragan ekainean bi aldeek izenpetutako lankidetzaren hitzarmen](#)aren barnean sartzen den programa alemanaren irakaskuntzarekin osatzen da. Eskola horiek udan hasi ziren Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako ikastaro trinko batekin, eta haren helburua gazte parte-hartzaileen lehiakortasuna eta enplegu-maila hobetzea da.

Hezkuntzako kontseilari José Iribasek, Nafarroako Volkswagen-eko zuzendari nagusi Patrick Danau eta fabrikako Giza Baliabideen zuzendari Carlos Escobar-ekin batera, programan parte-hartzen duten 18 ikasleri egin die bisita.

Gazteak enpresari lotuta daude praktiketako kontratu baten bitartez

eta beraien prestakuntza-jarduera garatuko dute Volkswagen Academy-ko eskola teorikoak (iragan martxoan inauguratutako prestakuntza-zentro bat, fabrikako langileen eta kanpoko pertsonen lanbide-beharrak betetzeko) lantegiko hainbat tailerretako praktikekin txandakatuz.

Ikasleak, titulatu berriak diren lanbide-heziketako ikasleak, honako ikastetxe hauetatik datoz: Lizarrako LHItik, Irunberriko Leireko Mendilerroa BHItik, Iruñeko Virgen del Camino LHItik, Iruñeko San Juan BHItik, Tafallako LHItik eta Iruñeko Salestarren zentrotik. Iragan ikasturtean, haiek guztiek beraien prestakuntza-zikloi zegozkien praktikak fabrikan egin zituzten.